

M 8





INGENIARITZA
DUALAREN ESKOLA
ESCUELA DE
INGENIERIA DUAL

Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Unibertsitatea

Unai Mendikute

Mendarotarra, 26 urte

Berrikuntzako Ingeniaritza Dualaren ikaslea

Berrikuntzako Ingeniaritza Gradu Dualaren azken urtean zaude, zergatik aukeratu zenuen Elgoibarko Ingeniaritza Dualaren Eskolan ikastea?

Nik aurretik mekatronikako goi-mailako zikloa ikasita nuen IMHn. Bestalde, kuadrillako pare bat lagun ditut gradu hau ikasi zutenak eta beraien aholkuari jarraituz erabaki nuen nik ere bide hau hartzea.

Nolako esperientzia izaten ari da?

Batxilergoa amaitu ondoren, Lanbide Heziketa ikasi eta lanera joan nintzen.

Ondoren, 23 urterekin ingeniaritza ikasketei ekin nien eta ibilbide luze honetan antzeman dut ikasteko exigentzia maila handiagoa dagoela.

Zure espektatibak betetzen ari dira?

Formakuntza maila handitzea zen nire helburua eta hala izaten ari da, bai.

Zein enpresatan ari zara garatzen zure profil profesionala? Zer proiektutan ari zara lanean?

Nire alderdi duala Macarboxen ari naiz egiten, enbalaia eraldatzeko makina aurreratuak egiten dituen enpresan, konkretuki Ikerketa eta Garapen departamentuan (I+G). Bertan inpresio digitaleko makina industrialarekin egiten dut lan. Makina hau berria izanik, bere erabilera eta funtzionamendua garatzeko hainbat proba tekniko egiteko ardura dut.

Lan esperientzia izateko aukera eman dizu eredu dualak. Berrikuntza proiektuetan lan egin duzu. Uste duzu zure amets profesionalak betetzeko lagungarri izango dela?

Bai, asko ikasi dut eta ikasitako gauza desberdinak lagungarri izango direlakoan nago.

Gradu hau ikastera animatuko zenuke norbait?

Lanbide-Heziketako goi mailako gradu bat egin duen pertsona animatuko nuke Berrikuntza-Ingeniaritza ikastera, datorren urtetik aurrera 3 urtetan ikasi ahal izango duelako, urte oso bat konbalidatuz.

**INFORMAZIO
SAIOA
Martxoak 5**



Gehiago jakin nahi ?

Eskatu zure saioa 943 748 264 telefonora deituz edo ingeniaritza.ehu@imh.eus helbidera mezua bidaliz

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Leire Kerexeta Berasaluze

Ikaslea

Gure datuen prezioa



**"Ulertzen al ditugu
pribatutasunaren
ordainketa onartzearen edo
errefusatzearen ondorioak?"**

Azken denboretan *Pay or Okay* (ordaindu edo baieztatu) terminoa zeresan handia ematen ari da. Sistema horren bidez, erabiltzaileek itxuraz sinplea den aukera bati egin behar diote aurre: pribatutasunari eusteagatik ordaindu edo beren datuak helburu komertzialetarako erabili behar direla onartu. Hala ere, itxuraz sinplea den metodoak zenbait arazo etiko eta praktikoa ezkututzen ditu.

Aditu batzuek diote sistema honen bidez erabiltzaileok gure datu pertsonalen gaineko kontrol handiagoa izango dugula, nahi ez ditugun edukiak jokoza kanpo uzteko aukera bermatzen baitugu. Hala ere, badaude kontrakoa pentsatzen dutenak ere, eta nire iritziz ere, kasu honetan txanponak bi aurpegi dauzka. Alegia, sistema berri honen helburu nagusietako bat erabiltzaileen pribatutasuna pribilegio bat bihurtzea dela eta, era berean, zatiketa birtualari bide ematea.

Bestalde, kontu berri honen beste alde korapilatsu bat lehiakortasunean eta lineako berrikuntzan izan dezakeen eragina da. Finantza-baliabide esanguratsuak dituzten enpresa handiak erraztasun handiagoa dute gure pribatutasunaren truke ordaintzeko, baina ez da berdina gertatzen baliabide ekonomiko txikiagoa duten enprekin.

Pay or Okay sistemak erronka desberdinak ere planteatzen ditu gardentasunaren inguruan. Erabiltzaileok benetan ulertzen al ditugu pribatutasunaren ordainketa onartzearen edo errefusatzearen ondorioak? Erabat informatuta al gaude gure datuak nola erabiliko diren ez ordaintzea erabakitzen badugu?

Horrenbestez, uste dut horrelako kasu batekin topatzen bagara, eta hemendik aurrera uste dut hamaika aurkituko ditugula, honako galdera hau planteatu beharko genioke gure buruari: ordaindu egin beharko genuke gure datu pertsonalak babesteko edo eskubide horrek berezkoa izan beharko luke?

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Plastikoa? Ez, eskerrik asko

Toxicological Sciences aldizkariak kaleratu berri du AEBetako ikertzaile-talde batek 62 giza karena edo plazenta analizatu dituela, gas-kromatografia eta masa-espektrometria baliatuta. Hauxe da emaitza: lagin guztietan mikroplastikoak zeuden. Ikerketa honen arabera, karen batzuetatik besteetara mikroplastiko-kontzentrazioa asko aldatzen da, baina denetan polimero sintetikoren bat aurkitu dute.

Plastikorik ugariena polietilenoa izan da,%54 (lagin guztietan zegoen). Ondotik zetozen polibinil kloruroa eta nylona (%10 haietako bakoitza), eta geratzen den %26a beste bederatzi polimerok osatzen zuten.

Ikertzaileek erabili duten metodoa egokia dela azpimarratu dute, bereziki mikroplastikoak identifikatzeko eta kuantifikatzeko horrelako ehunetan. Era berean, ikerketa hau arrisku toxikologikoa aztertzeke ere erabilgarria izango dela espero dute.

Beste hainbat ikerketatan, giza laginetan ere aurkitu izan dira mikroplastikoak, hala nola odolean, hesteetan... eta bizidunentzat kaltegarriak direla frogatuztat geratu da.

Guzti hau irakurrita bildurtzekoa ez al da? Plastikoa nonnahi daukagu (etxean, kalean, mendian, errekan, itsasoan...) eta orain, gorputzaren barruan. Plastikoa? Ez, eskerrik asko.

A.I.

Jon Aranao
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Ardurkerenik ostialdiz: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

leapointegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO

cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26

943 740 570 / 636 986 162



MEKANOSA
Erosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- MULTIKOPISTAK
- FOTOKOPIAGAILUAK
- ERLOJU INDUSTRIALAK
- MARRAZKETA MATERIALA
- INFORMATIKA
- FAXA

ESKURATU ZURE TDT-HD HARTZAILEA



ETA BERRESKURATU ZURE TELEBISTA!



MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112





688 655 658



Eskailera horrek konpontzeko beharra dauka:

"Bernardo Ezenarro kaleko eskailera horretan, baldosa solte dago, eta batek baino gehiagok estropozu egin izan du. Konpondu egin beharko litzateke, norbaitek min hartu aurretik".




Ezin dira edozein lekutan itsatsi kartelak:

"Herriko kaleetan badaude lekuak propaganda jartzeko, baina hortik kanpo jartzen dituzte askok, herria erabat itxuragabetuz. Kartelak jarri bai, baina kendu ez gainera". Hirigintza Sailera jo dugu eta ondorengo azalpena eman dute: "Eraikinetan edota hormetan kartelak jartzea debekatuta dago, Udaleko ordenantza baten arabera, eta horretarako propio egokitutako panelak daude herrian zehar. Eraikinetako kartelak garbitzen 18.000 euro gastatzen ditu Udalak urtero. Herriko elkarte eta eragileei eskatzen diegu panelak erabiltzeko, eta eskerrak eman nahi dizkiegu erabilera zuzena egiten dutenei. Herria txukun mantentzea denon ardura da".



Mintxetako gimnasioak hobetu behar handia du.

"Astero-astero jendez gainezka egoten da eta oso txiki gelditu da gaur egun dituen erabiltzaile guztientzat: ikusi izan dut jendea ateraino etorri eta barrua horren beteta ikustean, buelta ematen. Materiala eta makinak erabiltzeko luze itxaron behar izaten da, edo ezin izaten dira erabili, eta ariketak egiteko ere, edozein bazterretan jarri behar izaten duzu. Hori gutxi balitz, instalazioen egungo egoera penagarria da, eta agerian gelditu da, batez ere, aste honetako euriek itoginak eta guzti eragin dituztenean. Zaharkitua eta amaraunez betea dago, eta hezetasun arrasto ugari daude edonon. Olaizagako igerilekuekin eta muskulazio gelarekin horren lan ona egin ondoren, Mintxetakoaren txanda dela uste dut, eta premia handia duela gainera". Kirol Patronatura jo dugu, eta ondorengo erantzun dute: "Ez zaio arrazoirik falta Mintxetako muskulazio-gelako erabiltzaile honi. Itoginen arazoak jabetzen gara, baina irtenbidea konplexua



da, harmailen teilatuak dagoeneko eman duelako eman beharrekoa eta osorik aldatzea eskatzen duelako. Urtero konponketak egiten ditugu baina ez dute askorako balio. Aztertuko dugu gaia eta erantzun onena ematen saiatuko gara. Muskulazio gelako gainerako ekipamenduei dagokienez, erabiltzaileei galdetzen diegu eta urtero makina berriak sartzten saiatzen gara, eskaerari erantzuteko. Mintxeta eta Olaizaga berri eta hobetzeko lanean jarraituko dugu".

Anbulatorio berriaren proiektua idazteko lana lizitaziora atera du Osakidetzak



Elgoibarko Osasun Zentro berria eraikitzeko lehen urratsak eman ditu Osakidetzak, eta proiektuaren idazketa eta zuzendaritza atera ditu lehiaketa publikora. Eraiki asmo duten azpiegitura berria "funtzionalagoa" eta egungo laguntza-beharretara egokituagoa izango dela azaldu dute Osakidetzatik, eta zerbitzua handitzeko aukera emango duela azpimarratu dute, "Elgoibarren, Mendaron eta Sorluzen bizi diren pertsonen, 17.982 bizilagunei, arreta hurbilagoa, kalitatezkoa eta irisgarriagoa eskaintzeko". Osasun Sailak 3,6 milioi euro inguruko inbertsioa aurreikusten du proiektu honetarako, eta obra 2025ean zehar hasiko dela adierazi dute. Ondo bidean, 24 hilabetean amaitzea aurreikusi dute.

Osasun zentro berriak 2.400 m² inguruko azalera izango du, sotoko solairuan eta gaineko bost solairutan banatuta. Administrazio-eremu bat, familia-medikuntzako eta pediatriako gunea, emakumeari arreta emateko eremu bat, fisioterapiarako gunea bat eta Osakidetzako langileentzako eremu bat izango ditu. 26 mediku-eta erizain-kontsulta inguru izango ditu, baita sendaketa-gela, ekografia-gela, odola ateratzeko gela, larrialdi-gelak, edoskitze-gela, erditzea prestatzeko gela eta fisioterapia-gela bana ere.

Interesatuak martxoaren 15eko 13:00ak arteko epea dute deialdian izena emateko.

Kaleko stock azoka antolatu du Txankakuak datorren asterako



Merkataritza txikiari bultzada emateko asmoz, kaleko stock azoka egingo dute Txankakuako merkatariek datorren astean. Martxoaren 7tik 9ra denda atarietara aterako dituzte produktuak prezio merkeagoan. Denden ordutegian jarriko dituzte ikusgai salgaiak.

NIK aplikazio digitalaren bidez sartu ahal izango da Udal instalazioetara

Eusko Jaurlaritzak garatu duen aplikazioa da NIK Patrika Digitala, txartel birtualak sakelako telefonoan deskargatuta, Udal instalazioetarako sarbidea errazten duena. Aplikazio horri esker Elgoibarko Udal Kirol Patronatuko abonatuak Olaizaga kiroldegian, Mintxetako igerilekuan eta muskulazio gelan sartu ahal izango dira, aplikazioaren bidez. Horrez gain, padel eta tenis pistak ere erreserbatu ahal izango dituzte aplikaziotik. Era berean, Gotzon Garate Liburutegiko bazkideek NIK Patrika Digitala erabili ahal izango dute liburuak mailegatzeko.

Udal Kirol Patronatuko abonatuak edo Udal Liburutegiko bazkideek euren txartelak aplikazioan deskargatu nahi badituzte, BakQ identifikazio elektronikoko sistema izan behar dute. Identifikazio-sistemarik ez badute, herritarrek doan eskura dezakete Herritarren Arreta Zerbitzuan.

Karakate Eguna antolatu dute martxoaren 16rako, eoliko en proiektua baztertu egin dutela ospatzeko



Karakateko zentral eolikoaren proiektua bertan behera geratu izana herri osoaren lorpena izan dela adierazi dute Karakate Bizirik plataformatik, eta hori ospatzeko asmoz, Karakate Eguna antolatu dute martxoaren 16rako. Egun osoko egitaraua prestatzen ari dira, herriko beste eragile eta elkarte batzuekin, eta oraindik ekintza guztiak lotu ez badituzte ere, egunean zehar izango diren hainbat kontu aurreratu dituzte: goizean haurrentzako jolasak

izango dira Kalegoen Plazan, eguerdian jai giroa herriko kaleetan, ondoren bazkari herrikoa Maalako parkean, eta iluntze-gau partean musikak hartuko du Maalako eremua.

Bazkaritarako tiketak salgai daude Tantikan, Jai Alain, Lanbroan eta Txillarren. Hiru menu daude aukeran: arrunta (20 euro), begetala (20 euro) eta haurrentzako menua (10 euro). Martxoaren 10era arte egongo da txartelak erosteko aukera.

Debabarreneko bertso eskoletako ikasleak Mendaron elkartu dira

Debabarrenako bertso eskolen arteko topaketa egin zuten joan zen barikuan, Mendaron, eta huts egiteak tarteko, Mutriku, Mendaro, Elgoibar eta Sorluzeko bertso eskoletako 25 gaztetxo elkartu ziren, mokadu bat egiteko aitzakiarekin. Topaketon helburu nagusia bertsozaleak diren adin bertso kideak elkar ezagutzea izaten da, eta bertso-sortak abestu ostean, elkar ezagutzeko jolasak eta errima jolasak egin zituzten plazan, eta ondoren, mokadua, Lagun Betikoak tabernan. Tripa beteta, bat-bateko ariketa eta jolasei ekin zieten gero. Hitz tabuetan, hitzak deskribatzeko trebetasuna erakutsi zuten, txandaka-txandaka. Pertsonaia ezkutua deskubritzeko pista bila puntu erantzunetan aritu ondoren, oinak emanda istorio motz eta dibertigarriak sortzeko lanak egin zituzten. Eta irakasleen agurrarekin amaitu zuten eguna.

Martxoaren 15erako, berriz, Gelatik Plazara sariketa antolatu du Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak, bertsolari gaztetxoei jendeurrean kantatzeko aukera eskaintzeko. Gipuzkoako zortzi



eskualdetan egingo dute eta 8-14 urtekoek parte hartuko dute. Hirukoteka parte hartuko dute eta, talde irabazleek apirilaren 28an Aretxabaletan egingo den Gipuzkoako Bertso eskolen Egunean abesteko aukera izango du. Debabarrenako saioa Sorluzen izango da, martxoaren 15ean, 17:30ean hasita.

Pedro Mugurutzako eraikinarekin zer egin erabakitzeko partaidetza-prozesua abiatzea proposatu du EH Bilduk

Herri kontsulta batean amaituko den partaidetza prozesu bat martxan jartzea proposatu du Elgoibarko EH Bilduk Pedro Mugurutzako eskolaren eraikinarekin eta orubearekin zer egin erabakitzeko. Aitziber Aranberri, Jorge Hernando eta Jose Luis Mulasek eman zuten prentsaurrekoa eskolan bertan, beraien proposamena azaltzeko. Elgoibarko Udal Gobernuak eraikina botatzeko erabakia hartua duela uste dute, eta erabaki hori "hobeto saltzeko" ahaleginean ari direla orain. "Pedro Mugurutzako eskolekin zer egin erabakitzeko jarraitu beharreko prozedurari buruzko jarrera aldaketa bat zirudiena, alde zuzenetik hartutako erabaki bat hobeto saltzeko ahalegina besterik ez dela ondorioztatu dugu. Hartutako erabakia apaintzeko estrategia", adierazi du Aranberrik. Gogora ekarri du eraikina eraisteko diru partida bat jasoa zegoela 2023ko aurrekontuetan, baina kendu egin dutela 2024ko aurrekontuetatik. "Jarrera aldaketa horrekin bat etor zitezkeen erabakia zela pentsarazi zigun arren, ez da horrelakorik".



Egoera honen aurrean, parte-hartze prozesu bat abian jartzeko beharra ikusten jarraitzen du EH Bilduk, betiere egon litezkeen aukera desberdinen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa baloratzeko beharrezkoa den "informazioaren eskuragarritasuna bermatuz". Proposamen zehatz bat dute: Udalak 2024an onartutako Elgoibarko Herritarren Partaidetzarako Araudian oinarritutako partaidetza-prozesua martxan jartzea. Eta, bi fase edo epetan egitea planteatzen dute. Lehenengoan, alternatiba ezberdinak aztertzeko prozesu baten ostean atxikimendu handiena jasoko duten bizpahiru proiektu hautatzea proposatzen dute. Bigarren zatian, Udalak herri-galdeketa egitea proposatzen dute, lehen fasean hautatutako bi edo hiru aukeretatik zein gauzatu erabakitzeko.

Sakeleko telefonoaren erabilerari buruzko tailerrak antolatu dituzte martxorako

Elgoibarko Udalak sakeleko telefonoaren erabilerari buruzko formazio tailerra antolatu du gurasoentzat. Herriko hainbat guraso lanean ari dira seme-alabei sakelekoa noiz eta zein baldintzatan eman aztertzeko, eta kezka horiek argitzeko antolatu dituzte saio hauek. Telmo Lazkano adituak emango ditu saioak. 2023an Adikzioen Arloko jardunbide onenen Elkar Eginez saria jaso zuen. Martxoaren 6an eta 7an euskaraz emango du formazioa, eta martxoaren 15ean eta 22an, gaztelaniaz. Aita Agirreko areto nagusian izango dira saioak, 18:00etan. Izena emateko: acortar.link/Z9GH4L

Trinitateetako artisau azokarako izena emateko epea zabalik dago

Maiatzeko azken asteburuan ospatuko dira Trinitate jaiak Elgoibarren, eta hilaren 26an izango da artisau azoka. Izen-ematea telematikoki egin behar da elgoibar.eus webgunearen bitartez, apirilaren 12ra arte. Postuen banaketa udaletxeko langileek egingo dute, erakutsiko diren produktuak kontuan hartuta. Elgoibarko artisauak 100 euroko ordainsaria jasoko dute, eta atzerriko artisauak 150 eurokoa.



Iosu Etxaniz Aranberri

2024ko otsailaren 24an hil zen, 74 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Betirako izango zaitugu gogoan.




Jon Ulazia Iraolagoitia

2024ko otsailaren 22an hil zen, 61 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Ez ditugu sekula ahaztuko
elkarrekin bizi izandako uneak.
Asko maite zaitugu.***

Etxekoak



ETXE BERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA



943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

**Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.**



AHIZPATASUNAREN HAIZEA

Emakumeen Nazioarteko Eguna da Martxoaren 8a, borrokarako, aldarrikapenerako eta mobilizatorako eguna. Elgoibarren, Emakume* Feministen Asanblada taldea sortu dute egun horren harira, ikuspegi feministarekin lanean ari diren eragile eta norbanako ezberdinak batuta. Elgoibarko ahalik eta emakume gehien batu eta Martxoaren 8rako egitaraua lotzeko sortu dute taldea, bai eta aurrera begira emakumeen arteko elkartasun loturak sendotzeko ere.

✍️ Ainara Argoitia / 🗣️ Asier Orbea

Izaera feministako lantalde ezberdinak daude Elgoibarren, eta haien elkar-hartzetik sortu da Emakume* Feministen Asanblada, Elgoibarko askotariko emakumeak elkartu eta martxoaren 8ko egitaraua elkarrekin antolatzeko asmoz. Amatasun Feministak taldetik eta azaroaren 30eko greba batzordetik sortu zen martxoaren 8rako indarrak batzeko gogoia, eta esan daiteke, hein batean, azaroaren 30eko greba bera izan zuela abiapuntua. Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitu zuen greba hura, zaintzarako eskubide kolektiboren alde egin eta erakundeei zaintza-sistema publiko eta komunitario bat

martxan jartzea eskatzeko, eta Elgoibarren, Narrutsik talde feministatik egin zuten lantaldea sortzeko deia. Ordurako, Amatasun Feministak taldea ere sortua zen Elgoibarren. Izen-abizenez sinatuta ama batek whatsapppe zabaldutako mezua izan zen talde hura sortzeko hazia, eta egun gutxiren buruan, amatasunari lotutako esperientziak eta bizipen ezberdinei buruz hitz egiteko prest zeuden hogeit bat lagun baziren taldean; kontsolamendua, babesa eta iraultzarako espazioa zein konplizeak bilatzen zituztenak, aterkipe hartara batuta. Bi talde horietako kideek eta zenbait norbanakok mezuak



Haizeakoek, Amatasun Feministakoek, Narrutsik talde feministakoek, Elgoibarko LGTBIQ+ taldekoek, Lilakoek, Uluka batukadakoek eta hainbat norbanakok osatzen dute Emakume* Feministen Asanblada.

ahizpatasuna lantzeko balio izan zuelako ere. Kultur kafean egingo dute afaria, eta martxoaren 1a arteko epea jarri dute izena emateko. Interesa dutenek 10 euro ordaindu beharko dute eta Kultur Kafean, Pitxintxun edo Internetez eman beharko dute izena (<https://forms.gle/DD2vRLm9zHfK18VHA>). Baina Martxoaren 8a borroka eta aldarrikapenerako eguna da, eta ohi legez, manifestazioa ere egingo dute. Lehenengo bilera hartan bertan eskatu zuten horretarako baimena, eta ondorengoan adostu zuten 19:00etan egin ordez 20:00etan egingo zutela, hartara mobilizazioetan parte hartzea zaila izaten duten dendariei ere batzeko aukera emateko.

Martxoaren 8rako azken kontu batzuk lotzeko, astelehenean berriro elkartzeko konpromisoa hartu dute. Lilan egingo dute batzar hori, 17:30ean, eta parte hartzera deitu dituzte emakume* guztiak. Eta aurrera begira ere, elkarrekin lanean jarraitzeko borondatea agertu dute. Nahi lukete Elgoibarko emakumeen arteko elkartasun loturak sendotzen jarraitu, sinistuta daudelako borroka feminista dela emakumea askatzeko bidea. Momentuan, espazioa sortu dute, ikuspegi feminista batetik lanean jardun diren emakumeei aitortza egiteko, bai eta asmo horrekin lan egin nahi duten konplize guztiei iraultzarako espazio bat emateko ere. Zer egin eta nola taldean adostuko dute.

EGITARAUA

- 18:30 Trikiti-poteo berriketaldia, Kalebarrenen.
- 20:00 Manifestazioa, batukadarekin batera. Kalegoen plazan hasita.
- 21:00 Herriko emakumeen* afaria. Kultur Kafean

trukatu zituzten, eta lehenengo bilera egun bat lotu zuten, Martxoaren 8az hitz egiteko. Adostu zuten egun aproposa zela Martxoaren 8a Elgoibarko ahalik eta emakume gehienak batu eta elkarrekin zerbait egiteko, eta erronka hori hartuta, beste bilera bat egiteko gelditu ziren. Bilera hartarako, baina, herriko beste eragile batzuei ere egin zieten propio gonbidapena, eta hala gehitu ziren Haizea Emakume Taldekoak, Uluka batukada taldekoak, Lilako Berdintasun Kontseiluko kide batzuk, Elgoibarko LGTBIQ+ taldekoak eta beste zenbait norbanako. Taldea hazten joan da, baina atea zabalik mantentzen dute emakume gehiago hartzeko.

Hogeita zazpi bat lagun elkartu ziren bigarren bilera hartan eta aukeratu zuten taldearentzako izena, sortu zuten whatsapp taldea eta adostu zuten egitaraua. Egitaraua lotzeari atzekoz aurrera ekin zioten, Martxoaren 8an egingo zutena eginda ere, bukatu afari-mokadu batekin bukatu behar zela erabakia baitzuten; "Poteoa eta afari-mokadua ezinbestekoak ziren", azaroaren 30ean Maalan egin zuten tertulian sortu zen giroa aberasgarria iruditu zitzaielako han parte hartu zuten guztiei, gai askotarikoez hitz egin ahal izan zutelako, bai eta belaunaldi ezberdinen arteko laguneren artean



NEIDY RIBERA SALVATIERRA eta MARIANA REA CÓRDOBA

Diversas taldekoak

Mendaroko Tratu Onen Aldeko Taldearen eskutik, Diversas taldea sortu dute Mendaron jatorri askotariko emakumeek, ahizpatasuna landu eta beren errealitateak bistartzeko. Eta horretarako, Mendaroko emakumeen kulturarteko topaketa antolatu dute martxoaren 9rako. 11:00etatik 13:00etara lau erakusmahai jarriko dituzte frontoian, bai eta eskulan tailerra ere. 12:00etan, berriz, Alarma Morea taldeak kontzertua emango du. Runba flamenko-feminista egiten dute. Diversas taldeko Mariana Reak eta Neidy Riberak azaldu dizkigute ekimenaren nondik norakoak.

✍️👤 Ainara Argoitia

“Gustatuko litzaidake gure talde hau handiagoa eta askotarikoagoa izatea”

- Mariana Rea Córdoba -

Nondik eta noiz iritsi zineten Mendarora?

Mariana: Boliviarrak naiz sortzez, 42 urte daukat eta 25 urterekin iritsi nintzen Europara, Espainiara. Madrilan eta Bartzelonan bizi izan nintzen, harik eta 2009an Euskal Herrira etorri nintzen arte. Deban egon nintzen 11 bat

urtez bizitzen eta 2018an iritsi nintzen hona, Mendarora. Hezkuntza Zientzietan lizentziatua naiz, Bolivian, baina ez dut lortu nire ikasketak hemen baliozkotzerik, eta hemen askotariko lanetan jardun naiz: zaintza lanetan, garbiketaren lanetan... Orain, ostalaritzan dihardut lanean. 12

urteko alaba daukat eta bera izan da pauso bat aurrera emateko arrazoi nagusia.

Neidy: Boliviarrar naiz ni ere. Erizaintzako lizentziatura egiten ari nintzen ni han, hona etorri beharra egokitu zitzaidanean. Nire aita zen etortzekoa, baina nire sei neba-arrebak txikiak ziren artean eta errazagoa zen ni etortzea [neba-arrebetan nagusia da], aita etorri eta gu denok han gelditzea baino. Gainera entzuna geneukan emakumezkoek errazago topatzen zutela hemen lana, eta hala, ikasketak laga eta neu etortzea erabaki genuen, lehengusina batekin. 2005ean iritsi nintzen eta lau egunera lanean ari nintzen Madrilen, 80 urtez gorako bikote bat zaintzen. Etxeko langile moduan hasi nintzen, 600 euro kobratzen, eta zortzi urte egin ditut hala, etxez etxe. Gustuko lana dut, baduelako ikasten ari nintzenarekin zerikusirik, azken batean hori ere zaintza delako, baina lan-baldintzak ez dira onak izaten. Marianaren senarra lehengusua dut eta hark esanda etorri nintzen Euskal Herrira, 2010ean. Zaintza lanetan, garbitasunean eta ostalaritzan jardun naiz beti lanean hemen.

Zerk eraman zaituzte beste batzuekin batera Diversas sortzera?

Mariana: Nik beharra sentitzen nuen bizi naizen herriko beste emakume batzuen historiak ezagutzeko, haien artean leku bat bilatzeko, eta kanpotik etorriak garenon errealitateak ikustarazteko. Sorterria atzean laga eta hona etorri garen emakume guztion atzean historia gogor bat dago. Pauso bat eman nahi izan dut alabak eta etorriko diren gainerako emakumeek errazago izan dezaten. Esan nahi diet gurea ez den herrialdean ere izan gaitzkeela nor eta badugula zer eman. Iruditzen zait ekarpen handia egin dezakegula, baina oraindik ez diogula abegikor hartu gaituen herri honi dugun erdirik ere eman, askotan ez garelako sentitzen behar bezala integratuta. Beste kultura batetik gatoz beste hizkuntza bat daukaguen herrira. Egia esan, niretzat euskara ez da sekula traba izan, baina... Ostalaritzan egiten dut lan eta barraren atzean ikusten nautenean euskaldunenek ere erdaraz egiten didate. Eta aitortuko dizut gauza bat. Nik ere pentsatu nuen kanpotik datozen askok sentitzen dutena: zertarako ikasiko dut euskara aldi baterako banago hemen eta bizi banaiteke euskararik jakin gabe? Badakigu zenbat eskertzen duzuen euskaraz aritzeko ahalegina egitea, baina

"Sorterria atzean laga eta hona etorri garen emakume guztion atzean historia gogor bat dago"

- Mariana Rea Córdoba -

beste herrialde batera iritsi berritan hizkuntza ikastea baino lehentasun handiagoak izaten dira, batez ere hura gabe bizi zaitezkeenean. Orain bestela pentsatzen dut, baina...

Harrera egiten zer nolakoak gara?

Neidy: Ez litzateke justua orokortzea, denetarik dagoelako hemen ere, baina egia da arrazializatuak izanda, jendeak beste begi batzuekin begiratu ohi gaituela sarri eta badagoela jende bat gure kontura dirua egiten saiatzen dena ere.

Mariana: Ez dizut ukatuko momentu askotan zokoratuta sentitu garela, baina badakigu eta ulertzen dugu zaila dela kanpotik datorren bat gure artean besterik gabe hartzea ere. Kuadrillak indar handia dauka hemen eta haietan sartzea ez da erraza izaten, loturaren bat bilatu ezean. Eta nire helburua ez da hemen kuadrilla batean lekua egiteko eskatzea, baina bai, hemen gaudela erakustea. Gure seme-alabak zuenekin batera ari dira ikasten eta guri ere gustatzen zaigu lagunengurako eskatzea, kezkak partekatzea. Ama ororen ezinegona da. Aitortuko dizut etorri nintzenean, lana topatu, tesia egin ahal izateko beste diru egin eta sorterria itzultzea zela nire asmoa, baina nire alaba hemen jaioa da, hemen ditu lagunak eta pozik ikusten dut. Ez zen hasiera erraza izan, hala ere, eta pare bat urte zituenean tentatuta egon nintzen sorterria ez bazen, Madrilerako edo gaztelania hitz egiten duten beste leku batera joateko, errazago izango zuelakoan, baina lan egonkor bat geneukan eta gelditu ginen. Ordura arte, maletak desegin gabe bizi ginela esaten dut nik, beti jaioterrira itzultzeko ilusio horrekin. Askori gertatzen zaigu, baina erabakia hartu dugu gelditzeko, eta bihar zer izango den inork ez dakien arren, nahi nuke nire ekarpena egin eta zuen kulturaren integratzea.



📷 Ainara Egiguren

Alabak errazago izango zuelakoan gaztelania hitz egiten zen nonbaitera itzultzeko gogoia izan zenuela aitortu duzu, baina orain, euskara lagungarri ere izan zaizula, hein batean.

Mariana: Bistan da euskara ikastea garrantzitsua dela bertakotzeko. Zorionez, nik aukera izan dut lanean erraztasun batzuk lortu eta euskara ikasten hasteko, eta izugarri pozik nago. Hitz egiteko zailtasun handiak ditut oraindik, baina dezente ulertzen dut eta egunen batean hitz egiteko gai izango naiz. Erronka hori jarri diot neure buruari. Alabari laguntzeko hasi nintzen euskara ikasten, baina orain hark ez du nire premiarik eta neuretzat ari naiz ahalegina egiten. Lagunarte bat eman dit euskarak.

Neidy: Deban bizi izan nintzela hasi nintzen ni euskara ikasten, baina utzi nuen. 300 euro baino gehiago zen matrikula, eta badakit lan prekariotan dabilen etorri berri batentzat ahalegin ekonomiko handia dela diru hori aurreratzea, baina nik nahi nuen eta momentuan banuen dirua. Gero, lan-ordutegiakin bateragarri ez zitzaidalako, utzi egin behar izan nuen. Nahi izan nuen on-line ikasten jarraitu, baina matrikula 600 eurokoa zen, ordenagailua behar nuen... eta ezin nuen. Orain,

berrito, eman dut izena eta oso gustura nago. Gustura semeari lau hitz egiteko gai naizelako eta gustura ikusten dudalako jendeak asko estimatzen duela euskara ikasteko egiten dudan ahalegina.

Tratu Onen Aldeko Taldearen aterkipean sortu duzue Diversas. Nola izan zenuten Tratu Onen Aldeko Taldearen berri eta zer eman dizue?

Mariana: Lagun baten bitartez, eta eman nahi nuke haren izena: Arantxa Cebrian. Izugarri eskertuta natzaio, berak sartu ninduelako Tratu Onen Aldeko Taldean eta zabaldu dizkidalako hainbat ate Mendaron. Tratu Onen Aldeko Taldean oso ondo hartu naute eta lagunarte seguru bat topatu dut, gure errealitatea bistaratzeko, beste emakume batzuk ezagutzeko; ahizpatasuna lantzeko, azken batean. Mendebaldeko Saharako egoeraz ohartarazteko udaletxean egin zuten bilera batera joan nintzen eta bilera hartan Mendarora etorritakoen jarraipen bat egiteko asmoa irten zen. [2023ko urtarrilaren 1eko datuen arabera, 2.031 biztanle bizi dira Mendaron eta horien %13,7 atzerrian jaiotakoak dira. 176 estatuko beste probintzia batzuetan, eta 279 beste herrialde batzuetan].

Nola azalduko zenuke zer den Diversas?.

Mariana: Emakumez osatutako talde bat da. Whatsapp taldean 33 lagun gara, baina bileretan gutxiagok parte hartzen dugu. Inplikazio ezberdina daukagu, askok lan kontuengatik ezin dutelako etorri, baina egiten dugunaren berri dute taldekide guztiek.

Martxoaren 9rako iragarri duzue zuen estreinako ekintza. Zer izango da?

Neidy: Iaz erabaki genuen Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan zerbait egin behar genuela jatorri askotariko emakumeen errealitatea bistaratzeko, eta erabaki genuen Mendaroko kultura aniztasuna irudikatze azoka egitea. Badakigu Ekuador, Nikaragua, Bolivia, Uruguai, Kuba, Brasil, Ukraina, Italia, Senegal eta Portugaldik etorritakoak behintzat bizi garela Mendaron eta azokan saiatuko gara herrialde horietako batzuetako gastronomia eta kultura ezagutarazten. Lau erakusmahai jarriko ditugu, Ukraina, Bolivia, Nikaragua eta Euskal Herrikoa, eta mahai bakoitzean gure herrialdeari buruzko informazioa emango dugu eta mokadu goxoak jarri ere bai jendeak dasta ditzan. Gu geu ere han egongo gara, ahal dugun neurrian jendeak jakin nahi duen guzti horri erantzuteko.

Mariana: Besteenak ezagutu eta gure kultura bistaratu nahi dugu. Niri izugarri aberatsa iruditzen zait, adibidez, zuena, eta txapela kentzekoa, euskararekin egiten duzuen lana. Guk geuk ere badaukagu gure hizkuntza propioa Bolivian, Mojeño Trinitario deitzen dena, baina zoritxarrez etxean ez digute transmititu eta hitz solte batzuk baino ez dakizkigu, unibertsitatean ikasitakoak eurek. Espainiarrek kolonizatu zuten gure herria eta badaukagu joko eta dantza batzuk zuenekin antzekotasun handia dutenak. Aurreko batean Elgoibarren ikusi nituen euskal dantza taldekoak eta liluratuta gelditu nintzen, haien pausoak ezagunak egin zitzaizkidalako. Nola esaten diozue, zinta-dantza? Guk ere badaukagu halako bat, Sarao deitzen duguna. Eta erakutsi nahi dugu hori dena eta erakutsi nahi dugu baita ere Kolonizatu aurretik izan ginena, espainiarrak iritsi aurretik guk bageneukalako gure kultura, bageneuzkalako gure sinismenak eta ohiturak. Etxean saiatzen gara transmisio hori egiten, modu maitekor batean, baina aldi berean, historia gertatu den moduan kontatuta.

"Elkar ezagutzeko saiakera guztiak dira garrantzitsuak, eta helburu horrekin egiten den dena izango da ona.

Animatuko nituzke denak martxoaren 9an frontoira etortzera"

- Neidy Ribera Salvatierra -

Emakumeen taldea da Diversas. Nago besoa luzatu eta laguntza eskatzea ere errazago egiten duela emakumeak. Zer ikusten duzu inguruan?

Mariana: Iruditzen zait emakumeak, oro har, zabalagoak garela eta prestutasun handiagoa dugula ezberdinekin elkartzeko, eta hein berean, gizonek baino errazago eskatzen dugula laguntza, beharbada etxeko pisua geure gain jausten delako. Edozertarako prest izaten gara, eta are gehiago seme-alabak daukagunean. Guk kontatu dizuguna geure errealitatea da, baina emakume asko dago hemen bizitza gogorra izan duena, kanpokoak zein bertakoak. Horrekin esan nahi dut ez dudala biktima gisa agertu nahi, hemen ere badirelako asko sufritu dutenak eta mina denona delako mina. Baina, kanpotik dena utzita etorri diren asko ihesi etorri dira, pobreziatik, tratu txarretatik, gatazketatik... eta uste dut denok geneukala oihu egiteko gogo barruan. Gizonek ere izango dute beharbada, baina gehiago kostatzen zaie adieraztea.

Zer beste egitea gustatuko litzazueke?

Neidy: Elkar ezagutzeko saiakera guztiak dira garrantzitsuak, eta helburu horrekin egiten den dena izango da ona. Animatuko nituzke denak martxoaren 9an frontoira etortzera.

Mariana: Gustatuko litzaidake gure talde hau handiagoa eta askotarikoagoa izatea; gustatuko litzaidake gutako bakoitzaren bizipenen lekukotzak jasotzea nolabait, erakusteko sufrimenduan eta pozean antzekoak garela, erakusteko gutako emakume bakoitzak bizitzan zehar egin duen ahalegina, erakusteko zer laga dugun atzean eta zer lortzeko gai izan garen, eta batez ere, garen horretatik elkarri laguntzeko bidea egiteko.

■ MENDAROKO ETA ALTZOLAKO HONDAKIN-URAK ARAZTEGIRA ERAMATEKO BIDEA HASI DUTE



Debabarrena osoan, Mendaro eta Altzola auzoa dira ur-hondakinak Deba ibaira isurtzen dituzten bakarrak, baina badirudi URA Agentziak hasi duela isurketa horiek amaitzeko bidea. Izan ere, hondakin-ur horiek Apraizko araztegia eramateko proiektua aurkeztu du. Hamabi milioi euro pasako aurrekontua du proiektuak eta publiko dago URA Agentziaren webgunean, Obra Hidraulikoen atalean, interesdunek alegazioak egin ahal izateko. Martxoaren 6ra arteko epea dago horretarako. Mendaroko Udaletik "balio handiko proiektua" dela zabaldu dute, baina aldi berean, zuzendu beharreko zenbait kontu badirela uste dute eta hainbat proposamen egin dizkiote URA agentziari, alegazio moduan.

Mendaroko eta Altzolako hondakin-urak Arriaga auzoan dagoen Apraizko araztegia

eramateko proiektua publiko egin du URA Agentziak. 2023ko abenduaren 18an eman zioten hasierako onespina, eta alegazioetarako hogeit eguneko tartea zabaldu zuten gero, urtarrilaren 2an, Euskal Herriko Boletin Ofizialean argitaratu ondoren. Iragarki hartan zioten obra-proiektua interesdunen eskura egongo zela URA Agentziaren webgunean, ebazpena argiratu eta hurrengo egunetik aurrera, baina 2023ko proiektuaren ordezkari proiektu zaharra eskegi zuten, 2008koa. Hala ohartarazi zieten uholdeetan kaltetutako bizilagunen batzordekoek eta Udalak berak urtarrilaren 22an Mendaroko udaletxean egindako batzar batean, eta okerra zuzentzeko, otsailaren 8an berriro argitaratu zuten iragarkia Boletin Ofizialean. Ondorioz, alegazioetarako epea luzatu dute eta martxoaren 6ra arteko epea dago alegazioak egiteko.

Mendaroko Udalak "balio handiko proiektua" dela uste du aukeztu dutena, proiektuak arazo handi bati ematen diolako irtenbidea: batetik, hondakin-uren ponpatze-estazioen (HUPE) bitartez, saneamenduaren konexioa hobetzea, eta bestetik, Debabarreneko eremu osoan ibaira egiten diren hondakin-uren isuriak amaitzea. Hala ere, hobetu daitezkeen zenbait alderdi ikusi dizkio, bereziki Garagartza auzoan eraiki asmo duten ponpatze-estazioaren inguruan, eta aldaketa proposamenak aurkeztu dizkio URA agentziari, alegazioen bitartez. Gauza bera egin du uholdeetan kaltetutako Garagartzako bizilagunen batzordeak ere.

Debarreneko saneamendu proiektu horren baitan Mendaroko Azpilgoeta, Garagartza (tartean, Ospitalekoak), Plaza auzoa, eta ESSER eta Erramone industrialdeetako hondakin-urak eta Elgoibarko Altzola auzokoak Apraizko araztegiara eramatea aurreikusten dute, eta horretarako, kolektore bat eta bost ponpaketa-estazio eraikitzea. Horietako bat Altzolan eta beste laurak Mendaron: Azpilgoetan, Kurutz gain industrialdean, Plaza auzoan, eta handiena, Garagartzan. Ponpaketa-estazio guztiak edateko uraren hartune bat izango dute, eta koadro elektrikoan, talde elektrogeno bat konektatzeko entxufea, larrialdietarako. Mendarotik Altzolara arteko kanalizazioa, berriz, bazterbidetik egitea aurreikusten dute. Obra horren aurrekontu osoa hamabi milioi euro pasakoa da (12.537.744,81 euro) eta aurreikusten dute hemezortzi hilabete beharko dituztela obra gauzatzeko.

Mendaron eraikitzeak dituzten lau ponpatze-estazioen artean Garagartzakoak sortu du kezka handiena herrian. Haurreskola ondoko parkean eraiki asmo dute eta 20 bat metro zabal eta 5,6 metro garaiko oinarria izango duen eraikina izango da. Zati handi bat lurpean eraikiko dute, baina beste zati bat kanpoan. Mendaroko beste hiru estazioak, txikiagoak direnez, lurpean joango dira oso-osoan, eta gure kaleetan ohikoak diren kutxatila baten itxura izango dute begiratu batean. Garagartzako estaziora bideratuko dira Deba ibaiatz alde baterako ur-hondakin guztiak eta hark hartuko du, beraz, bolumen handiena. Mendaroko Udalaren arabera, proiektuak ez ditu behar bezala aztertzen ponpatze-estazioaren eta Mendaroko Haurreskolaren arteko hurbiltasunak eragin ditzakeen kalteak (bai eraikitze-aldian eta baita funtzionamendu garaian ere). Besteak beste, ingurumen-inpaktuari dagokionez, azpiegiturak zarata egin dezake, eta proiektuak ez du justifikatzen azpiegiturak kalitate akustikoaren helburuak betetzen dituenik.

Ondorioz, Udalak eta azkeneko hamar bat urtean Garagartzan uholdeek sortzen duten arazoentzako irtenbide eskean aritu diren bizilagunen batzordekoek uste dute planteatutako kokalekua ez dela egokiena herritarren interesetarako, eta beraz, alde guztientzat konponbide egokiagoa ekar dezaketen aukerak aurkeztu dizkiote URA agentziari, bakoitzak bere aldetik.

Whatsapp komunitatea sortu du Udalak udal boletinak zabaltzeko

Herritarrek Udalak egiten duenaren berri izan dezaten, Mendaroko Udalak, hilean behin, udal-buletina zabalduko du sortu berri duen WhatsApp komunitatearen bitartez, euskaraz zein gazteleraz. Komunitatera atxikitzeko, herritarrek ondorengo estekan sartu beharko dira: <https://chat.whatsapp.com/KGXuoLxp7v2AJ8cZwCLTk6>. Partaidetza anonimoa da, hau da, norberaren telefono zenbakia ezkutuan egongo da gainontzeko taldekideentzat, eta herritarrek nahi dutenean izango dute taldetik irteteko aukera.

Aingeru Guardako jaiak ospatuko dituzte gaur eta domekan, Mendaron

Aingeru Guardakoaren eguna da gaur, eta haren omenez, meza emango dute Plazako izen bereko ermitan, 11:00etan. Jai-ospakizun gehienak, baina, domekarako antolatu dituzte. 11:00etan, Hitzaren liturgia irakurriko dute, eta bertsolariek eta trikitilariak girotuko dute meza-ostea. Igor Rey eta Maite Olazabal arituko dira trikiti eta panderoarekin, eta Aimar Sorazu eta Aitor Urbietak egingo dute bertsotan. Ondoren, herri kirol saioa egingo dute Julen Cañamaresek eta Aratz Mugertzak. Txosna ere egongo da.

ALBA DUQUE / Argazkilaria

 Ainhoa Andonegi

'Gureganako bidea' argazki erakusketa inauguratuko du gaur Alba Duque (Bartzelona, 1992) argazkilaria. Emakumezkoen gorputzak filtrorik gabe erakutsiko ditu, estereotipoei aurre eginez eta emakume askotarikoei lekua eginez. 18:30ean zabalduko dute erakusketa, eta bisita gidatua egingo dute gaur, egilearekin berarekin. Martxoaren 15era arte egongo da ikusgai bere obra, Kultur Etxean.

'Gureganako bidea' izena jarri diozu erakusketari. Zein da gugana garamatzen bide hori?

Norberak bere bidea deskubritu behar duela iruditzen zait. Nik eta nire inguruko emakumeok egin dugu bide hori, argazkigintzaren bidez. Autoesplorazioa eta autodeskubrimendua landu ditut, eta zaurgarritasunari eta autoestimuari loturiko trabak gainditzen saiatu naiz. Gure gorputz propioa eta gure izaera nola sentitzen ditugun jasotzen saiatu naiz.

Nola erabaki zenuen emakumezkoen gorputzaren gaia lantzea?

Uste dut arrazoi bat baino gehiago egon direla gai honek nire interesa pizteko. Umea nintzela, nire amak anorexia zeukan. Beraz, umetatik bizi izan dut patriarkatuak emakumezkoaren gorputzean daukan eragina. Horrez gain, urte askoan dantzaria izan nintzen, eta dantzan lehiatzen ibili nintzen. Diziplina horrek ere gorputza nabarmen zailtzea eskatzen du, eta nolabait gorputzaren esklabu egiten zaitu. Argazkigintzan hasi nintzenean, edertasun kanon guztiak betetzen zituzten emakumeak ezagutu nituen, eta konturatu nintzen haiek ere bazituztela beldurrak. Argi ikusi nuen inor ez dagoela gorputzaren presio horretatik salbu. Argazkigintzak, gainera, badauka egia ezkutatzeko aukera, benetakoa dena manipulatu dezake, eta nik horren kontra egin nahi nuen.

Zein da erakusketaren helburua?

Benetako gorputzak erakutsi nahi izan ditut erakusketa honetan, errealak eta ederrak, tranparik gabeak. Ezkutuko azaleratu nahi izan ditut, ezkutuan ere edertasun handia dagoelako. Sarri entzun izan ditut emakumeak esaten beraien



“Ezkutuko azaleratu nahi izan dut, ezkutukoan ere edertasun handia dagoelako”

gorputza gorroto dutela, eta pena ematen dit, azken batean gorputza gu garelako eta horrek esan nahi duelako norbere burua gorroto dutela.

Nola aukeratu dituzu zure argazkietako protagonistak?

Ez ditut aukeratzen, nahi duen orok hartu dezake parte. Deialdiak egin izan ditut, eta agertu diren guztiak atera izan ditut. Horrez aparte badauzkat argazki sesio intimoagoak, familiartekoak, generazio desberdinak islatzen dituztenak, erditu berri diren emakumeenak, minbizidunenak... Bost bat urtean ari naiz lan honekin, eta 300 bat emakume erretratatu nituen honezkerok. Pertsonekin lan egitea gustatzen zait, eta gai guztietan sartzen ditut. Argazkiak oso erreminta onak dira nik nahi dudana hori erakusteko, eta konexio handia daukat argazki kamerarekin. Baina ez nago itxita. Bideoak ere egiten ditut eta bestelako tresnak erabiltzeko ere prest nago. Kamera atzean oso gustura sentitzen naiz, baina aurrean jartzea ez zait asko gustatzen. Ilusio handia daukat nire lana Elgoibarren erakusteko.

Korrikaren amaierara joateko autobusa antolatu du AEK Euskaltegiak



Euskal Herri osoa zeharkatu ostean, Baionan amaituko da Korrika, martxoaren 24an, eta Debabarrenetik hara joateko autobusa antolatu du AEK Euskaltegiak. 09:00etan irtengo da Eibartik eta soraluzearrak jaso ostean, 09:30ean irtengo da Elgoibartik, Gaztetxe pareko autobus geltokitik. Baionatik 19:30ean itzuliko dira. Prezioa 15 eurokoa da, eta izena emateko Whatsappa bidali behar da, 688 746 634 zenbakira. Antolatzaileek zehaztu dutenez, apuntatu ahalako hurrenkera hartuko dute kontuan autobusean lekua hartzeko.

Elgoibarren eta Mendaron, martxoaren 20an

Martxoaren 14an hasiko da Korrika Irunen, eta hilaren 20an iritsiko da Elgoibarrera eta Mendarora. Ondo bidean, 12:09an hartuko dute elgoibartarrek lekukoa Saturion, eta herria zeharkatu ostean, Mendarorako bidea hartuko du. Elgoibartarrek 12:00etan egingo diote Korrikari ongi-etorria Santa Ana kaleko errotondan, Mauxitxa txarangarekin. Mendarora 12:55 aldera iritsiko da.

Era berean, eskola umeek Korrika Txikia egingo dute egun horretan. Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako umeak kalera irtengo dira 15:00etan, eta Maalatik Kalegoen plazara arte egingo dute korrika, euskararen alde.

Oiartzungo Aurreku Txapelketan hartu du parte Uxue Cabrerak



Oiartzungo Aurreku Txapelketa jokatu zuten joan zen asteburuan, eta Uxue Cabrera izan zen Inazio Bereziartua dantza eta musika eskolako ordezkari bakarra. Pozik da lehiaketan egin zuenarekin, bere onena emateko gai izan zelako eta astez aste ikasten dihardutena erakutsi zuelako jendaurrean.

Ligako hurrengo jardunaldia Elgoibarren jokatuko dute, martxoaren 10ean, eta lau elgoibartarrek hartuko dute parte: Uxue Cabrera, Duna Santos, Unax Ansola eta Haizea Luluaga. "Aukera oso ona gazte hauek egiten ari diren lan bikaina bertatik bertara ikusteko eta txalotzeko", adierazi dute dantza eskolako arduradunek.

Karta jokoak eta sexologia tailerra antolatu ditu Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak datorren asterako

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak mus eta tute txapelketak antolatu ditu datorren asterako. Debabarreneko jubilatuen arteko txapelketa izango da. Astelehenean mus txapelketa jokatu dute, eta eguaztenean, berriz, tute txapelketa. Bi lehiaketak 16:00etan hasiko dira.

Horrez gain, helduentzako sexologia tailerra ere emango dute datorren astean. Eguenean izango da, martxoaren 7an, eta Libe Osa erizain eta sexologoak gidatuko du saioa. Jubilatuen Biltokian bertan izango da, 17:00etatik aurrera.

2025eko Kilometroak jaia Elgoibarren izango da

2025eko Kilometroak jaia Elgoibarren egingo dela jakinarazi du Elgoibar Ikastolak. Gipuzkoako Ikastolen aldeko jaia da Kilometroak, eta urriko lehen domekan egiten dute 1977az geroztik. Datorren urtekoa Elgoibarren egiten den bigarren aldia izango da. 1996an ere Elgoibarrek hartu zuen Ikastolen aldeko festa eta 55.000 lagun inguru elkartu ziren euriak eta lokatzak baldintzatu zuen jaia: "Badakigu erronka handia dela, baina gure komunitatea sendotzeko eta proiektua gizartetaratzeko aukera ezin hobea dela deritzogu", adierazi dute Elgoibar Ikastolako kontseilu errektorea eta zuzendaritza osatzen duten kideek 2025eko Kilometroak antolatzeko erabakiaz. 2024ko



Kilometroak jaia Azpeitian egingo dute urriaren 6an, eta Ikasberri Ikastolaren lekukoa hartuko du Elgoibar Ikastolak.

Jose Mari Zialtzetak eta Manuel Salegik irabazi dute Euskal Herriko Mus Txapelketako Elgoibarko kanporaketa



Euskal Herriko Mus Txapelketako Elgoibarko kanporaketa jokatu zuten joan zen zapatuan Tantaka tabernan, eta musulari beteranoen eskarmentua gailendu zen karta jokoan: Jose Mari Zialtzetak eta Manuel Salegik irabazi zuten txapelketa.

Guztira hamahiru bikote aritu ziren lehan, eta elkarren aurka jokatu ostean, bi bikote sailkatu ziren finalerako: Jose Mari Zialtzeta eta Manuel Salegi batetik, eta Jose Antonio Pires eta Pedro Oteiza iazko irabazleak, bestetik. Finalen Zialtzeta eta Salegi izan ziren onenak eta eurentzat izan da Elgoibarko txapela. 2020an jokaturako kanporaketan ere eurak izan ziren

txapeldun, eta aurrez ere behin baino gehiagotan irabazitakoak dira, beste bikote batzuekin. Irabazleek bi laguntzako afaria eta bi ardo botila jaso zituzten saritzat, eta bi laguntzako afaria jaso zuten txapeldunordeek.

Martxoaren 9an jokatu dituzte herrialdeetako finalak, zazpi herrialdeetan. Gipuzkoakoa Hernanin jokatu dute eta Elgoibarko kanporaketan finalera iritsi ziren bi bikoteek izango dute Hernanin lehiatzeko aukera. Final nazionala, bestalde, Zuberoako Alzain herrian jokatu dute, martxoaren 23an. Euskal Herriko Txapelketa irabazten duen bikoteak 3.000 euro jasoko ditu eskudirutan eta Karibera bidaia lau laguntzako.

Saxofoi doinuez gozatu dute musikazaleek Hamaikasax lehiaketan

Saxofoi jole gazteen Hamaikasax lehiaketa jokatu zuten zapatuan Inazio Bereziartua musika eskolako auditoriumean. Euskal Herriko eta Espainiako 19 lagunek hartu zuten parte hiru kategoriatan banatuta, tartean lau elgoibartarrek: Elaia Etxaniz, Laia Martinez, Leire Etxaniz eta Itxaso Garaizabal. Musika Eskolako saxofoi irakasle eta zuzendari pedagogikoa den Aitor Novak esan duenez, gozatu ederra hartu zuten saxofoia maite dutenek asteburuan: "Maila bikaina eman dute partaide guztiek, eta Musikeneko saxofoi ikasleen kontzertua sekulakoa izan zen". Domekan iritsi zen sariak emateko unea, eta Udal Musika Bandaren kontzertua baliatu zuten sari banaketa egiteko. 16 urtera artekoen sailean Ilija Pelayo kantabriarrak irabazi zuen, eta Tenerifeko Cristina de Los Angeles Gomez izan zen bigarrena. 14 urte artekoetan, berriz, Irungo Irune Gomez izan zen onena, eta Malen Pacheco hernaniarrak egin zuen bigarren. 12 urtera artekoetan bi hernaniar izan ziren onenak: Xabier Abril eta Ander Pacheco. Balorazio positiboa egin dute antolatzaileek asteburuaz: "Dena primeran joan da, eta giro oso ona izan dugu".



Martxoaren 11ra arteko epea dago Elgoibarko Idazlan lehiaketan parte hartzeko

Elgoibarko VII. Idazlan Lehiaketa antolatu du Udalak, eta martxoaren 11ra arteko epea dago lanak aurkezteko. LH3tik hasita, Batxilergoko edo Erdi Mailako Lanbide Heziketara arteko ikasleek hartu dezakete parte. Gaia librea izango da, baina ezinbestean euskaraz idatzitako lanak aurkeztu beharko dira. Parte hartu nahi dutenek beraien ikastetxean entregatu beharko dituzte lanak.

Ipuin kontalaria eta 'Esto no es sexo' liburuaren aurkezpena martitzenean Elgoibarren

Martxoaren 8aren harira, Maider Galartza ipuin kontalariaren saioa antolatu du Udal Liburutegiak martitzenerako. LH1eko umeentzako saioa 17:00etan hasiko da, eta segidan, LH2 eta LH3koentzako saioa egingo dute. Egun berean, baina musika eskolako auditoriumean, *Esto no es sexo* liburua aurkeztuko du Marina Marroquí idazleak, 18:00etatik aurrera.

UR HANDITAN

✍️ Ainhoa Andonegi
📍 Ainara Argoitia / Asier Orbea

Gogotik egin zuen euria astelehen eguerdian hasi eta martitzen eguerdira bitartean, eta beste behin ere, Deba ibaiak gainezka egin zuen gurean. Ohiko lekuetan irten zen ura bere bidetik: Maltzagarako bidegorria urak hartu zuen Andikao inguruan, Altzolan ere marra gorriira iritsi zen ibaia, eta kaltetuena Mendaro izan zen berriro. Kilimon ibaiak ezin izan zuen bere emaria Deba ibaira isuri, eta Garagartza auzoan ura pilatu zen. Urak hartu zuen kalea, eta inguru horretako zenbait garaje eta portaletan ere sartu zen ura. Luiziak ere egon ziren, besteak beste, Altzolan, eta tren zerbitzua autobusak ordezkatu behar izan zuen. Martitzen goizean istripu bat ere egon zen Sigma auzoan. Orriotan bildu ditugu euriteak utzitako hainbat irudi. Argazki eta bideo gehiago: barren.eus





Egaña aita-semeak gailendu dira Elgoibarko Ehiza Xehe Txapelketan

Jose Mari eta Arkaitz Egaña aita-semeen burura joan dira Elgoibarko Ehiza Xehe Txapelketan jokoan zeuden txapelak. Ohi moduan Arabako Zambrana herrian dagoen El Castillo ehiza barrutian jokatu zuten La Union Ehiza eta Arrantzu Elkartek antolatzen duen Elgoibarko Ehiza Xehe Txapelketa. Senior mailan lehia estua eduki zuten Arkaitz Egañak eta Carlos Condek, eta zazpi eper aurkeztu zituzten biek ehizaldiaren amaieran. Lehenago aurkeztu zituenez, Arkaitz Egañarentzat izan zen garaipena eta Conderentzat bigarren postua. Haren anaia David sailkatu zen hirugarren postuan, lau eper ehizatuta. Ivan Bellorentzat izan zen laugarren postua, hiru eperrekin. Lau ehiztariok izango dira Elgoibarko ordezkariak Debabarrenako Ehiza Xehe Txapelketan. Beteranoen kategorian ere estua izan zen Jose Mari Egañak eta Ramon



Alberdik eduki zuten lehia, hiruna eper ehizatu baitzituzten. Egañarentzat izan zen lehen postua eta Alberdientzat bigarregoa. Manuel Novak osatu zuen podiuma, eper batekin. Egaña eta Alberdi izango dira La Union elkarteko ordezkariak eskualdeko txapelketan.

Ezpeletak eta Urretabizkaiak ezin izan diote tituluari eutsi

Urrezko Binakako Aizkolaria Txapelketaren finala jokatu zuten domekan, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan. Iazko txapeldunek, Hodei Ezpeletak eta Jokin Urretabizkaia *Basozabalek*, amore eman behar izan zuten Iker Vicentek eta Arkaitz Etxebestek osatutako bikotearen aurka, gutxigatik izan bazen ere. Vicentek eta Etxebestek 22 minutu eta 49 segundo behar izan zituzten lanak bukatzeko; Ezpeletak eta Basozabalek, 23 minutu eta 35 segundo, alegia, irabazleek baino 46 segundo gehiago. Eneko Otañok eta Julen Larrea III.ak 26 minutu eta 51 segundoan bukatu zituzten lanak. Bost lan gauzatu behar izan zituen bikote bakoitzak: erlojuaren kontra bakoitzak 45 ontzako enbor bana ebaki zuten; txanda librean, zutik, kanaerdiko bat; abiaduran, korte erdian, 65 ontzako bana; zutik, 45 ontzako bana; etzanda kanaerdiko bana; eta txanda librean, 60 ontzako, 65 ontzako eta oinbiko bina.

Herri kirol jaialdi berean jokatu zituzten Gazteen mailako Banakako Txapelketaren finala eta Urrezko Harri Jasotze Txapelketako



gizonen eta emakumeen finalak ere. Jon Erdozia etxarriarra izan zen azkarrena 20 urtez azpiko aizkolarien arteko lehian. Harriekin, Imanol Royo Lartain eta Mikel Lopetegi Urra gailendu ziren Gizonen Binakako harri-jasotze txapelketan, eta emakumeen arteko lehian Karmele Gisasola *Zelai III.a* izan zen irabazlea.

Elgoibarrek hartuko ditu eskuz binakako Emakume Master Cup txapelketako finalerdiak, domekan



Azken txanpara ailegatu da Binakako Master Laboral Kutxa pilota txapelketa eta finala jokatzeko txartelak izango dira jokoan Elgoibarren, domekan (martxoak 3). Zortzi bikote lehiatu dira urtarrilaren 21ean hasi zuten txapelketan, eta domekan jokatu zuten ligaxkako azken jardunaldia, Etxebarriko udal pilotalekuan. Jardunaldi guztietako emaitzak kontuan hartuta, Arrizabalaga-Erasun Beitia-Mendizabalen aurka eta Etxegarai-Gaminde Aldai-Bergararen kontra arituko dira bi finalerdietan. Izan ere, finalerdietako gurutzaketak erabakitzekeo bikote bakoitzaren

tanto aldea hartu dute kontuan eta horrela, onenak izan diren Arrizabalaga-Erasunek Beitia-Mendizabalen aurka jokatu dute eta Etxegarai-Gamindek Aldai-Bergararen kontra. Elgoibar Ikastolako frontoian jokatu dituzte bi finalerdiak, domekan, 12:00etatik aurrera. Euskal Telebistak zuzenean emango ditu. Bi bikote irabazleek Arrasaten jokatu dute finala, martxoaren 17an. Duela lau urte ere, 2020an, Elgoibarren jokatu zituzten txapelketa honetako finalerdiak. Gainera, koronabirusaren pandemia hasi zenetik Elgoibarren jokatu zen lehen kirol ekitaldia izan zen.

Kadeteen txirrindulari lasterketa jokatu dute martxoaren 9an Mendaron



Mendaro Herria Sari Nagusia txirrindularitza lasterketaren hirugarren ekitaldia antolatu du Mendaroko Txirrindulari Elkarteak martxoaren 9rako. Kadete kategoriako txirrindulariak lehiatuko dira eta 43 kilometroko ibilbidean Elgoibar, Soralueze, Bergara eta Arrasate igaroko dituzte, besteak beste. Lasterketa 16:00etan hasiko dute Kurutz Gain industrialdean, bai eta bukatu ere. Era berean, antolatzaileek boluntarioak behar dituzte proba ahal den eta segurtasun neurri handienekin antolatu ahal izateko. Bidegurutzeak zaintzeko behar dute jendea, bereziki.

LANA

Eskaerak

Gizon arduratsua garbiketak egiteko edo pintore zein peoi lanetarako prest. **632 708 954**

Bikote arduratsua, adinekoak zaintzeko prest. Esperientzia daukat. **634 196 236**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia. **637 222 318**

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest, orduka. Esperientzi handia. **632 684 096**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia, eta ordutegi maglua. **613 576 523**

Edozein lan egiteko prest nago. Baita asteburuetan ere. **611 215 176**

Sara naiz, eta lan bila nabil. Umeak zein adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Erreferentzia onak ditut. **604 392 529**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Urteetako eskarmentua eta titulu soziosanitarioa dauzkat **632 679 710**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Erizain titulua daukat eta ospitaleko zaintza lanean urteetako esperientzia. **642 883 496**

Edozein lan egiteko prest nago. **612 202 116**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzi handia eta titulua. Karrozeria lanak ere egiten ditut. **613 509 765**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzi handia. Etxeko langile moduan edo orduka. Gauzez ere bai. Titulua daukat. **632 229 972**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan. Esperientzia. **661 181 824**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzi handia. Etxeko

langile moduan edo orduka. Gauzez ere bai. **644 655 354**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzi handia. Etxeko langile moduan edo orduka. Gauzez ere bai. **644 943 297**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulu soziosanitarioa eta esperientzi handia. Orduka. Gauzez ere bai. **679 912 841**

Eskaintza



Adineko bat zaintzeko pertsona behar dugu. Etxeko langile moduan. Titulua beharrezkoa. **687 114 707**

GARAJEAK


Garaje itxia alokatzen da, Jausoro plazan (udaletxetik gertu). **672 422 237**

BESTELAKOAK

Mastin arrazako txakurkumeak oparitzen ditut. Otsailaren 25ean jaio ziren. **663 134 415**


  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure etxebizitzan merkataritza-lokal bat dago, atarira eta garajeetara sartzeko aukerarik ez duena. Jakin nahi nuke komertzio horren jabea aseguru komunitarioa ordaintzera behartuta dagoen, berak bere aseguru pribatua izanik.</p> <p>Erantzukizun zibileko aseguruak estaltzen du elementu, zerbitzu eta instalazio komunen funtzionamendu okerraren edo kalteen ondorioz hirugarren bati eragindako kalteak ordaintzeko betebeharra. Ildo horretan, aseguruaren prima higiezinaren erabilera egokirako beharrezko gastutzat jotzen da. Gastu hori nahitaezkoa dela ezartzen duen lege-xedapenik egon ala ez, gastu hori beharrezkoa da kasu guztietan. Beraz, komunitateko kide guztiak parte hartu behar dute gastu horretan, salbuespenik gabe, merkataritza-lokalak barne, legean gastuak banatzeko ezarritako eta jasotako araubide orokorrarekin bat etorritik.</p> <p>Gomendioa. Kontratutako poliza komunitarioaren helburua elementu komunen ondoriozko erantzukizun zibila estaltzea da, ez jabetza pribatiboena, partikular gisa. Horretarako, etxebizitza edo lokal bakoitzak bere aseguru izango rdu kontratatuta. Jabetza partikular bakoitzak bere aseguru izateak ez du esan nahi aseguru orokor bat kontratatu behar ez denik. Izan ere, komunitate orokorrari eragiten dion aseguru hori kontratatuz, Komunitateko azpiegiturei eragiten dieten ezbeharrei estaldura eman ahal zaie.</p> <p>ASSEGURU GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Nora**, otsailaren 26an 4 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, ahizpa Malenen partez.




Zorionak, **Galder!** 9 urte jada! Jarraitu horrelakoa izaten. Asko maite zaitugu. Etxekoen partez.



Zorionak, **Lea**, asteartean 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, maite zaitugun guztion partetik.



Zorionak, **Liertxo!** Asko maite zaitugu! Etxekoen, eta bereziki, Sareren partez.



Zorionak, **Miren eta Pol!** Aste hau ospakizunez beteta dator! Zorionak bikote politenari, familia osoaren partez.



Zorionak, **June**, asteartean 3 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Gorka eta Naroaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

RPS 181/19



KONTSULTATEGIA

Hortzetako pasta guztiak berdinak al dira?

Hortzetako pasta desberdinak topatu ditzakezu hortz-arazo desberdinetarako. Badira txantxarra prebenitzera bideratuta daudenak. fluor asko dute horiek, hortza indartzeko eta mineralizatzen. Hortzoien hantura-arazoetarako (gingibitisa), jardura antiseptikoa duten substantziak dituzten dentifrikoak daude. Gingibitisa lotailuetara eta hortzei eusten dien hezurrera (periodontitisa) iristen denean, Klorhexidina duten hortzetako pastak asko lagundu dezakete. Ezin dira luzaroan erabili, baina, batzuetan orbanak eragiten dituztelako. Badira baita hortzetako orbanak kentzen eta zuri mantentzen laguntzen duten pastak ere, eta beste batzuk hortzetako esmaltea hondatzen edo hortzoiak atzera botatzen laguntzen dutenak.



Ortodontzia daramatenentzat, esmaltea eta hortzoiak ortodontzia-gailuen eraginetik babesten dituzten dentifrikoak ere badaude. Haurrentzako pasta bereziak, adinerako gomendatutako fluor-kantitatearekin, gomendagarriak dira oso adin tarte horretan. Nolanahi ere, farmazietan saltzen diren hortzetako pastak dira gomendagarriak eta beti ere, onena zure konfiantzako dentistak gomendatutakoa erabiltzea litzateke, unean-uneko zure beharretara egokitzen dena erabiltzeko.

ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com

943 366 377

1 BARIKUA

11:00 Meza, Aingeru Guardako ermitan.

18:30 Argazki erakusketa: 'Guganako bidea'. Alba Duque argazkilariaren lana egongo da ikusgai Kultur Etxean, hilaren 15era arte. Inaugurazio egunean egilearekin bisita gidatua egingo dute.

2 ZAPATUA

09:00 Hurrei lehen sorospinak egiten ikasteko tailerra. Treba Gurasoak egitasmoaren barruan, Gurutze Gorriak emango du. Arno Guraso Elkarateak antolatuta, Mendaroko Udalean.

3 DOMEKA

Aingeru Guardako jai

11:00 Hitzaren liturgia emango dute Mendaroko Aingeru Guardako ermitan.

12:00 Bertsolari eta trikitilariak, Mendaroko Plaza auzoan, Aingeru Guardakoan.

12:30 Herri Kirolak, Mendaroko Plaza auzoan. Julen Cañameres eta Aratz Mugertza arituko dira aurrez aurre.

12:00 Pilota: Master Laboral Kutxa eskuz binakako txapelketako finalerdia. Elgoibarko Ikastolako frontoian.

4 ASTELEHENA

16:00 Mus txapelketa. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. Eskualdeko biltokien arteko txapelketa.

5 MARTITZENA

17:00 Ipuin kontalari saioa: 'Printzesak kontu kontari'. Mainer Galartzarekin, Gotzon Garate Udal liburutegian. Lehen saioa LH1ekoentzat, eta bigarrena (17:30) LH 2 eta LH3koentzat.

18:00 Liburuaren aurkezpena: 'Esto no es sexo'. Marina Marroquí idazleak aurkeztuko du, Inazio Bereziartua Musika Eskolako auditoriumean.

6 EGUAZTENA

16:00 Tute txapelketa. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian. Eskualdeko biltokien arteko txapelketa.

18:00 Hitzaldia: 'Mugikorraren auzia'. Gurasoentzako formazio saioa emango du Telmo Lazkanok. Aita Agirreko areto nagusian, euskaraz.

7 EGUENA

17:00 Sexualitate tailerra, adinekoentzat. Libe Osa erizain eta sexologoak gidatuko du saioa. Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.

18:00 Hitzaldia: 'Mugikorraren auzia'. Gurasoentzako formazio saioa emango du Telmo Lazkanok. Aita Agirreko areto nagusian, euskaraz.

8 BARIKUA

11:30 Martxoaren 8ko manifestazioa, Arreiturre BHI eraikinetik.

18:30 Tertulia-poteo feminista. Kalebarren plazan.

20:00 Martxoaren 8ko manifestazioa. Kalebarren plazan.

21:00 Emakumeen* afaria. Kultur Kafean.

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean



BARREN



943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR




Zinea

Herriko Antzokian



'Sala de profesores'

- 1, barikua: 19:00
2, zapatua: 19:00 / 22:15
3, domeka: 19:00
4, astelehena: 21:00



'Slow'

(Ongarri zinekluba)
6, eguaztena: 21:00



'El fantasma de Canterville'

3, domeka: 16:30

2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

MARTXOA

1 BARIKUA	Garitaonandia
2 ZAPATUA	Arriola
3 DOMEKA	Arriola
4 ASTELEHENA	Fernandez
5 MARTITZENA	Yudego
6 EGUAZTENA	Oruesagasti
7 EGUENA	Barrenetxea
8 BARIKUA	Ibañez

2024 urte guztian, gauzez:

Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez:
Herriko
Enparantza,4
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142

■ Ibañez:
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384



Ekarri etxean duzun aulki edo
sofa zahar hori eta
berri-berri utziko dugu!
Milaka oihal ditugu aukeran!



Lehen

Orain



Melania
Oprisan
Aviles

6 urte, Elgoibar

"Armiarma beltza"



Alba
Ramos
Blanco

7 urte, Elgoibar

"Euskal Herriko mendiak"



HAMARREKOA

Ikusten dituzu irudien arteko aldeak?
Hamar dira denera! Ea asmatzen dituzun!



Erantzunak: _____



HARTZA
TXAKURRA
ARRAINA
Hitzak osatu:

HITZAK OSATU

Hitzak osatzeko letrak egoki
ordenatu eta ondoren marraztu!



A I N A R R A



K A T U R A X U R



H A T R A Z



ELGOIBAR STOCK KALE AZOKA

Martxoak 7-8-9

10:00-13:00 eta 17:00-20:00

Postuak establezimendu atarietan egongo dira.

Parte-hartzeko eta informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 747 301 zenbakira.